

Jakinarazten dizuegu BILBAO EXHIBITION CENTREk jakin izan duela enpresa batzuk gure erakusketariekin harremanetan jartzten ari direla BILBAO EXHIBITION CENTREren edota horren azoken izenean helburu hauetarako:

## **1.- Mundu guztiko azoketako erakusketarien nazioarteko datu-basea eguneratzeko eta publizitate-txertaketak merkaturatzeko.**

Mundu guztiko azoken eta horietako erakusketarien nazioarteko datu-basea da hori, eta horren historian hainbat aldaketa daude sozietatearen izenean eta helbidean, hala nola:

- "Event fair exhibitors index"
- "Fair expo global business exposure"
- "Fair guide"
- "Expo guide"
- "Event Fair The Exhibitors Index"
- "International Fairs Directory"

Hainbat herrialdetan kokatutako enpresen bidez merkaturatzen ari da, eta oraintsu enpresa hauek antzeman dira:

- Mulpor Company, S.A (Uruguai) (Costa Rica)
- Expoguide S.C. (Mexiko),

Enpresa horiek erakusketariei bidalitako inprimakietan BILBAO EXHIBITION CENTREren edota horren azoken izenak sartu izanak -horrek nahasketa eragiten du-, ez du inolaz ere esan nahi BILBAO EXHIBITION CENTREk enpresa haiekin zerikusirik duenik.

Inprimakiaren amaieran, letra txikian, kontratatzen ari zareten enpresa eta zerbitzuaren kostua irakur daiteke.

BEC, beste azoka-antolatzaile batzuk eta azoka-sektorearen mundu-mailako elkarte bera ([UFI](#), The Global Association of the Exhibition Industry) bezala, ahal duen guztia egiten ari da bezero erakusketariei eragin diezaiekeen arazo hori konpontzeko, zerbitzu hori BECekin edota horren azokekin lotzen baitute.

Hala ere, nahi ez diren egoerak saiheste aldera, harpidetza-inprimakia jasotzen duten erakusketari guztiei arren eskatzen diegu eduki guztia sinatu aurretik arretaz irakurtzeko, eskaintzen zaien zerbitzua kontratatu nahi dutela ziur egon daitezen.

## **2- Azoketan parte hartzen dutenen datu-baseak erakusketarien artean merkaturatzeko.**

BILBAO EXHIBITION CENTREk jakinarazten du bere azoketan parte hartzen dutenen zerrendak konfidentzialak direla eta inola ere ez zaizkiela hirugarrenei ezagutarazten.

Horrelako mezu elektronikoren bat jasotzekotan, ez zaitezte horien edukiaz fidatu eta, mesedez, jakinaraziezaguzue, beharrezko neurriak har ditzagun.

Gure [pribatutasun-politikan](#) aurkituko duzue datuen tratamenduari buruzko informazio eguneratu guztia.